

## Galdera

Zein da egokiena? Matrize baten "minorea" ala "minorra"? Testuingurua hau da: "Matrize baten heina kalkulatu dugu minoreetatik/minorretatik abiatuta".

## Erantzuna

Matrize baten **minorra**

1/ Jakintza-arlo jakin bateko terminoak bilatzeko euskaltermera jotzea egokia bada ere, guk, lehenengo, Euskaltzaindiaren Hiztegian begiratzen dugu; izan ere, bertan, zenbaitetan, arlo jakin bati buruzko adibide eta zehaztapenak agertzen dira. Oraingoan ere halaxe jokatu dugu, eta hau ikusi dugu: "minore" hitza ez da azaltzen; bai, ordea, "minor". Eta hitz horren bigarren adieran hau ageri da:

2 iz. *Mat.* Matrize karratu batetik errenkada eta zutaberen bat edo gehiago kenduta lortzen den matrize karratuaren determinantea.

Horrenbestez, testuinguruan jarrita:

"Matrize baten heina kalkulatu dugu minorretatik abiatuta".